



2021/2022 denboraldia

23. ZIRKULARRA

INFANTIL TXIKI LIGA TXAPELKETA

Gipuzkoako Futbol Federazioaren laguntza teknikoarekin eta jokalarien heziketa prozesuaren kalitatearen maila igotzeko interesa duen Real Sociedad klubaren lankidetzarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiak, berari dagokion esparruan, Gipuzkoako Eskola Kiroleko Jardueren Programaren barnean dagoen Infantil Txiki lehiaketa antolatzen du.

1. KLUB PARTAIDEAK

1. MULTZOA

- 1 BEHOBIA C.D.
- 2 HONDARRIBIA F.E
- 3 MARIÑO C.D.
- 4 REAL UNION CLUB SAD
- 5 SAN MARCIAL C.D.
- 6 OIARTZUN K.E.
- 7 TOURING KE

2. MULTZOA

- 1 TRINTXERPE C.D.
- 2 ASTIGARRAGAKO MUNDARRO FKE
- 3 BETI ONA C.D.
- 4 ORERETA KAFAA, F.C.
- 5 VASCONIA C.D.
- 6 INTERNACIONAL C.D.
- 7 ANTIGUOKO K.E.

3. MULTZOA

- 1 ORIOKO F.T.
- 2 LENGOKOAK K.E.
- 3 IGELEGI DE DONOSTIA C.F.
- 4 ZARAUZ KE
- 5 ARRUPE CHAMINADE C.D.
- 6 MARTUTENE K.E.
- 7 MUNDAIZ S.C.D.

4. MULTZOA

- 1 EUSKALDUNA S.D.
- 2 HERNANI C.D.
- 3 URNIETA K.E.
- 4 OSTADAR S.K.T.
- 5 DANENA K.E.
- 6 AÑORGA K.K.E
- 7 KOSTKAS KE

5. MULTZOA

- 1 TOLOSA C.F.
- 2 AIZKORRI GOIERRI F.T.
- 3 BEASAIN S.D.
- 4 BILLABONA K.E.
- 5 IDIAZABAL K.E.
- 6 LAZKAO K.E.
- 7 ORDIZIA K.E.

6. MULTZOA

- 1 AMAIKAK BAT K.E.
- 2 BURUMENDI F.G.
- 3 LAGUN ONAK C.D.
- 4 UROLA K.E.
- 5 ZUMAIAKO F.T.
- 6 ANAITASUNA C.D.
- 7 ELGOIBAR C.D.



7. MULTZOA

- 1 ARETXABAETA K.E. UDA
- 2 ARRASATE C.D.
- 3 ALOÑA MENDI K.E.
- 4 BERGARA K.E.
- 5 EIBAR S.A.D.
- 6 ILINTXA S.D.
- 7 URKI C.D.

2.LEHIAKETA SISTEMA

Honako hiru fasetan egingo da:

LEHENENGO FASEA

Hasierakoa:

Izen emate librea, baina talde bakarra klub bakoitzeko (49). 49 talde hauek 7 multzotan banatuko dira eta lehiaketa itzuli bakarrera jokatu da (7 jardunaldi)

BIGARREN FASEA

Sailkapen-fasea:

Hasierako fasearen sailkapena (7 jardunaldi) bederatzi multzok osatzen dute, eta multzo bakoitza kirol maila eta gertutasun geografikoaren arteko orekaren arabera eratuko da.

Lehenengo fase hau amaitzean, emaitzen arabera lehiaketa bi maila ezberdinetan banatuko da: **Errendimendua eta Parte Hartzea.**

HIRUGARREN FASEA

A. ERRENDIMENDUA

Multzo bakoitzeko lehen bi sailkatuek ($2 \times 9 = 18$), eta hirugarren sei onenak - lortutako puntuen eta jokatuako partiden arteko zatidura onena- jokatu dute fase hau. Guztira



24 talde izango dira, 6 taldeko 4 multzotan banatuta (10 jardunaldi). 24 talde hauek, 2022-2023 denboraldian Ohorezko Infantil Mailan parte hartzeko eskubidea dute.

Multzo bakoitzeko lehen sailkatuek (1x4=4), aurretik lehiakidea eta zelaia zehazteko zozketa eginda, partida bakarreko finalerdia jokatuko dute (2022/05/22). Partida horietako irabazleak eta galtzaileak, finala (2022/05/29) eta 3-4 postuak, hurrenez hurren.

Finalera iristen diren taldeek eta hirugarren sailkatuak Gipuzkoako futbolaren ordezkari gisa joango dira Euskadiko Errendimenduzko Infantil Txiki txapelketara.

B. PARTE HARTZEA

Gainontzeko 25 taldeek, 5 taldeko 5 multzotan banatuta, bi itzulietara (10 jardunaldi) txapeldunaren titulua eta 2022-23 denboraldiko Ohorezko Infantiletako 32 taldeen multzoa osatzeko falta diren 7 postuak jokatuko dituzte.

Multzo bakoitzeko lehen sailkatuek (1x5=5) eta bigarren postuan geratutako hiru talde onenek –jokatutako partida eta lortutako puntuen arteko zatidura onena dutenak - (guztira 8), partida bakarrera eta aurretik zozketa eginda, jokatuko dituzte final-laurdenak (2022-05-22), finalerdiak (2022-05-29) eta finala (2022-06-05) Parte Hartze ligako txapelduna izendatzeko.

32 taldeko multzoa osatzeko libre geratu diren 7 postuak era honetara beteko dira:

- Final-laurdenetako irabazleak (4 talde)
- Finalerdietako galtzaileen arteko bi irabazleak (2 talde)
- Galtzaileen arteko irabazlea (talde 1)

7 talde hauek, Real Sociadekin batera, Batzar Nagusiko akordioaren arabera, 2022-23 denboraldiko Ohorezko Infantilen 32 taldeko multzoan sartzeko eskubidea izango dute.

3.IRAUPENA ETA ALDAKETAK

Partiden iraupena 70 minutukoa da, 35 minutuko bi zati eta 10 minutuko atsedenaldea, eta **zazpi aldaketa** egin ahalko dira.

Errendimendu hastapeneko lehiaketa honen heziketa izaera dela eta, aktan azaltzen diren jokalarri guztiak partidari ahal den denbora gehiena jokatu beharko dute. Zelaira sartzen den azken jokalarriak ezingo ditu 20 minutu baino gutxiago jokatu eta ezingo da zelai jokoan sartu partiduaren bigarren zatiaren 15.minutua baino beranduago. Arau hau betetzen ez bada eta aurkako taldearen aurretiko salaketa bat baldin badago, partida galdutzat emango da.



4.DEIALDIA

Batzar Nagusian heldutako akordioaren arabera, **taldea osatzen duten jokalarien %80k deialdian eta partidaren bertan egon beharko du. Arau hau betetzen ez bada eta aurkako taldearen aurretiko salaketa bat baldin badago, partida galdutzat emango da, salatuta izan den klubak aurkezten dituen ezinbesteko kausak behar bezala justifikatuak eta frogatuak izan ezean.**

5.JOKALARIAK

2009an jaiotakoek soilik jokatu ahalko dute.

6.LIZENTZIAK

Eskola Kirolaren Programan jasotako lehiaketak direnez, parte-hartzaileek bi erakundeen logotipoak izango dituen eskola-lizentzia izango dute, eta federazioan bertan bideratuko dira, lehiaketa hasi aurretik "Kirol lizentziak" sistemaren bidez, azterketa medikua eta mutualitateko alta egiaztatu ondoren.

Talde bakoitzak **gehienez 20 lizentzia** izango ditu. Hala ere, denboraldian zehar dauden altak eta bajak konpentsa daitezke.

7.ORDUTEGIAK

Klub antolatzaileek posible izango dute beraien partida larunbat goizera edo arratsaldera aurreratzea aurkakoaren baimenik gabe.

8.XEDAPEN OROKORRAK

Izen-ematea:

Izen-ematea Federazioko Intranetetik egingo da.

Laguntza-estaldura:

Lehiaketa eskolarra izan arren, **Espainiako Futbolarien Gizarte Aurreikuspeneko Mutualitatean** afiliatuta egon behar da.

Azterketa medikuak:

Lizentzia tramitatu aurretik, **kirolariak futboleko aritzeko gaitasuna duela egiaztatu beharko da.**



9. OHOREZKO INFANTILEN PARTE HARTZEA KADETE MAILAN

"Azken urteko ohorezko infantilek kadete mailan izena eman eta parte hartu ahal izango dute, honako irizpide hauek bete ondoren:


- Gipuzkoako Foru Aldundiari egindako eskaera arrazoitua, proposatutako jokalarien zerrenda zehatzarekin.
- Foru Erakundearen baimena, eskolarretako infantilek kadete mailako lehiaketetan parte har dezaten.
- Dagokion federazio-lizentzia tramitatzea.

10.COVID-AREN ARAUTEGIA ETA PROTOKOLOA

Covid-19ari buruzko ezohiko araudia Gipuzkoako Futbol Federazioaren 10. zirkularrean jasota dago. Halaber, ahal den neurrian, SARS-COV-2 (COVID-19) SAIHESTEKO OSASUNAREN BABESARI ETA PREBENTZIOARI BURUZKO PROTOKOLOA BETETZEA gomendatzen da Euskadiko Futbol Federakundearen ENTRENAMENDUETAN ETA/EDO LEHIAKETETAN. Araudi hau hiru lurraldeetako federazioekin batera idatzia eta Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak onartua da.

Donostia, 2021eko iraila

GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA
FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL


Iñigo Letamendi Artetxe
Idazkari Nagusia-Secretario General